

## Santa Anako eskulturak bueltan dira zaharberritu ondoren



Beraien lekutik 2019an eraman ziren Santa Anako portadako lau eskultura exentuak, Katedralera itzuli dira, Arabako Foru Aldundiko Zaharberritze Zerbitzuko harri-tailerrean PETRA SCOOP enpresaren eskutik zaharberritze prozesua jaso ondoren. Santa Maria Katedrala Fundazioa eta Zaharberritze Zerbitzuko teknikari espezialistek gainbegiratu dute lana.

Zaharberritze-prozesua lanez betetako izan da, eta erregistro geometriko lanak, laginen analisiak laborategi espezializatueta eta azterketa geologikoak eta historiko-artistikoak egin dira. Eskulturak sakon aztertu ondoren, esku hartzeko probak egin ziren eta, ondoren, zaharberritzeko tratamenduak gauzatu.



## Zuzeneko bisita birtualak ikasleentzat

Santa Maria Katedrala Fundazioak ikasle-taldee zuzendutako zuzeneko bisita birtualaren esperientzia jarriko du abian, katedralaren alderdi artistiko, historiko, turistiko eta arkitektoniko guztiak hezkuntza-komunitateari hurbiltzeko, pandemiak aurrez aurreko ohiko jarduerak egitea eragozten duen une honetan.

Otsailean, Fundazioak hainbat proba egingo ditu, osasun-murrizketak direla eta ohiko talde-bisitak egin ezin izan dituzten ikastetxeekin. Horretarako, eskura dauden baliabide digital guztiak baliatu dira eta eduki berri eta esklusiboak sortu, ikasleek Santa Maria Katedralean egindako lanera modu berri-tzailean hurbiltzeko aukera izan dezaten.

Bisita birtualak zuzen-zuzenean egingo dira. Beraz, esperientzia aurrez aurreko bisitak bezain pertsonalizatua izango da. Ikastetxe laguntzaileekin aurreikusitako

tako saioen bidez ekimena finkatu ondoren, hezkuntza-komunitate osoari irekiko zaio.

Teknologia berrien aldeko apustu hori, jardueraz beteta dagoen ondare historiko biziko elementu gisa katedralaren prestakuntza-ahalmenari balioa emateko Fundazioak ematen duen beste urrats bat da. Hezkuntza-sektorearekin aurrera eramaten den

lankidetzari esker, Fundazioak hainbat unitate didaktiko diseinatu ditu ikastetxeetan gauzatzeko. Prozesua osatzeko, ondoren, Katedrala bisitatu da. Nabarmenezkoa da bisita birtualak ez duela aurrez aurreko bisita ordezten, baina katedrala beste modu batean ezagutzeko aukera ematen du, batzuetan askoz ere zehatzagoa, eta etorkizunerako aukera bat izatera deitua dago, ez bakarrik pandemia garaian.







## Santa Anako portadaren zaharberritzea, urratsez urrats

Aurreko zenbakian aipatzen genuen bezala, datozen hilabeteetan, XIV. mendean Santa Anako portada eraikitzeko prozesua nola gauzatu zen kontatuko dizuegu, ilustrazioen bitartez. Oraingo honetan, lehen harlanduak jartzeari buruzko bigarrena aurreratuko dizuegu.


### II. atala Lehenengo harlanduak jartzen

Santa Ana elizpea eraikitzen hasi zirenean, mende bat baino gehiago zen giroa berria eta gurutzadura eraikitzeko lanak abian zeudela. Ahalegin horrekin lortu nahi zen helburua, elizako agintariek Santa Maria eliza soiletik kolegiata izatera igotzeko baimena ematea zen. Ikerketek erakusten dutenez, elizpea 1332. urte inguruan osatu zen, eta kolegiata titulua lortzeko lehen eskaera 1387. urte inguruan egin zen. Lehen eskaera horrek, ordea, ez zuen aurrera egin.




#### Harresia

Eraikin berriaren aurrerapenak berak, azkenean, harresi zati on bat eraistea ekarriko zuen arren, hasiera batean bere lekuan jarraitu zuen. Horrela, hiria ez zen babesik gabe geratuko obrek irauten zuten bitartean.



#### Obrarako sarbidea

Santa Anako elizpea harresiak apurtu ziren leku bakarrean eraiki zen, langileak bertatik sartu ahal izateko obrako patiora.



#### Montea

Bat egingo zutela ziurtatzeko, piezak lehenik lurrean muntatzen ziren. Geometria perfektua zutenean bakarrik hasten ziren altxatzen, behin betiko lekuan jartzeko. Puzzle moduko horri 'montea' esaten zioten.

Gehiago jakin nahi baduzu: **Coldstream, N., 2001, Artesanos medievales: Constructores y escultores, Madrid**  
Ilustrazioak eta testuak: **Ismael García-Gómez (GPAC, Enklabe KST)**

Jarrai gaitzakezu